

LAIKOEN APOSTOLUTZARAKO ORDEZKARITZA

AISIALDIAREN

ELIZBARRUTI MAHAIAREN

AURKEZPEN AGIRIA

BILBOKO ELIZBARRUTIA ♦ 1999

AISIALDIAREN ELIZBARRUTI MAHAIAREN AURKEZPEN AGIRIA

A.- JATORRIA: Zertarako sortzen da AEMa?

Aisialdiaren elizbarruti Mahaia 1997. urtean sortzen da helburu honegaz: "Kristau Aisialdiko Hezkuntzaren gunea eratu Bilboko Elizbarrutian".

Horretarako ekintza bi proposatzen dira:

1. Lehen agiria egin kristau Hezkuntza-Aisialdiak Elizbarrutian dauan lekua aurkezteko: "Aisialdia Elizbarruti Pastoraltzan". Agiri hau denporearen buruan aberasteko egin zan.
2. Bilboko Elizbarrutian Hezkuntza-Aisialdian jarduten daben erakunde desbardinak ordezkaturako leukezan Mahaia sortu.

B.- AZALPENAK: Zer da Aisialdiaren Elizbarruti Mahaia?

Aisialdiaren Elizbarruti Mahaia (AEM) Bilboko Elizbarrutiko Eskultismo eta Aisialdiaren pastoralta suspertzeko eta uztartzeko erakundetzat jotzen da. Laikoen Apostolutzarako Ordezkarien barruan dago eta, jardunari begira, Gazteriaren Elizbarrutiko Idazkaritzan parte hartzen dau.

C.- OSOKETEA: Zeintzuk osotzen dabe AEMa?

AEMa. Elizbarrutiko Aisialdian eskudun diran erakundeetako ordezkarietz osotuta dago. Honeek dira:

- Laikoen Apostolutza (LA).
- Gazteriaren Elizbarrutiko Idazkaritza (GEI).
- Euskalerriko Eskautak Bizkaia (EEB).
- EDE Fundazioa (EDE).
- Parrokietako aisialdiko taldeen koordinadora.
- Aisialdiko Fedearen Pedagogiaren elizbarruti arduraduna.

D.- HELBURU OROKORRAK: Zein da AEMaren jomugea?

1. Kristau Hezkuntza-Aisialdiaren elizbarrutiko erreferentzia nagusi bihurtu.
2. Elizbarrutiko Aisialdiaren esparrua aldizka zuzenduko daben helburu nagusi eta bereziak eratu, suspertu eta ebaluatu.
3. Esparru honetan diharduen erakunde eta talde guztien ekintza koordinatu
4. Parrokietako Eskultismo eta Aisialdiari balio haundiagoa emoteko egitekoak garatu, gizakiaren osoko hazkundean hezkuntza-esparru garrantzitsutzat hartuz.
5. Parrokietako eskaut eta Aisialdiko erakunde eta taldeei lagundu, euren jardunean sortutako beharrezanetan.

E.- EGINKIZUN OROKORRAK

1. EEEa aintzat hartuta helburuak ezarri eta ekiturte desbardineta zehaztu.
2. Parrokietako Eskultismo eta Aisialdiari buruzko gogoetarako lagungarriak eskeini pastoraltzako maila desbardineta.
3. Parrokietako Eskultismo eta Aisialdiari hezkuntza-ibilbideak burutzen dabean gazteen elizaratzea eragin.
4. Parrokietako Eskaut-Aisialdiko taldeak eta osoko pastoraltzaren arteko lotura egokia eragin.
5. Aldian-aldian gaurkotutako Elizbarrutiko Aisialdiaren azterketea izan.
6. Elizbarrutiko Aisialdiaren inguruko errealitateen egitura eta antolaketa mailako sendotasuna eskeini.
7. Heziketa eta gaitze alderdia landu, esparru honetan jarduteko.
8. Aisialdiko Fedearen Pedagogiaren Elizbarrutiko Arduradunaren irudia ikuskatu.

F.- ZELAN EGITEN DAU BERE LANA AEMak?

AEMa erregulariki batzen da eta bere jarduna maila bitan banatzen da:

1. Jarduerea kanpora begira:
 - Taldeen eskaera jakinei erantzun.
 - Burutzen diran eintzak aztertu.
 - Taldeak uztartu eta koordinatu.

2. AEMaren barruko lana:

- Gogoeta bateratua egin.
- AEMaren eraketea.
- Erreferente izan elizbarruti mailan.
- Aisialdiko Fedearen Pedagogiaren arduradunaren irudia zehaztu.
- Egunean-egunean sortzen diran gora-beherak.

G.- ZEIN IZAN DA GURE IBILBIDEA ORAIN ARTE?

Honeek izan dira AEMak 97/98 eta 98/99 ekiturteetan izan dituan **helburuak**:

1. Parrokietako eskaut eta aisialdiko taldeak lurraldeko (parrokia/eskualdea) pastoraltzagaz (alkarteko bizitza, ardurakidetasunezko organoak, euren ebanjelizatze lana baloratu) uztartu.
2. Parrokietako aisialdiko taldeen arteko hartuemonaren sendotu, honek elizbarruti mailan koordinatuz.
3. Aisialdian esku hartzeko heziketa eta gaitasuna argitu.
 - 3.1. Aisialdiko Pastoral Ekintzaileen heziketa ibilbideak finkatu.
 - 3.2. Taldeetako kideen heziketa perfilari buruzko gogoetea, berezitasun eta erantzukizun maila desbardinak kontuan hartuz.
 - 3.3. Aisialdiaren berezitasunaren onarpenaren alde jardun.

Honek izan dira, beste batzuen artean, sasoi honetan jarri izan doguzan **bideak**:

- A.- Elizbarruti mailako azterketea egin, parrokietako eskaut eta aisialdiko taldeen egoereaz jabetzeko bere lurraldeko pastoraltzan.
- B.- Lurraldeetako gazteen arduradunekin jardun. Hezkuntza-Aisialdia ezagutzera emon, alderatu, ekarpenak...
- C.- Parrokietako eskaut eta aisialdiko taldeen partehartzea eragin EEEda egitean.
- D.- Bikarritza/Eskualdeetako kuadro bat egin, parrokiako eskaut eta aisialdiko taldeak lurraldeko pastoraltzan sartuta dagozan ala ez ikusteko eta ekintza barriak suspertzeko.
- E. Parrokietako eskaut eta aisialdiko taldeen eskari eta egoera zehatzei erantzun.
- F.- Bilboko Elizbarrutiko Hezkuntza-Aisialdiaren egoerearen etenbako barri-emotea.

G.-

H.- GEROARI BEGIRA DOGUN ERRONKEA

Jakin badakigu mahai lez lehen urratsak baino ez doguzala emon, baina gure Elizbarrutian, Hezkuntza-Aisialdia guztiz esanguratsua dala pentsatzen dogu eta, aldi berean, gure lekuko Elizea osotzen daben eta osotzen dogun lagun, ekintzaile, arduradun... gehienok sakontasunez ez dogula ezagutzen. Horregaitik, Aisialdiaren Elizbarruti Mahai lez, hezkuntza esparru hori ezagutzera emotea da gure asmoa, egitasmo misiolari eta ebanjelizatzaile lez aurkeztuz.

Gure Elizearen eraikuntzan lagungarri izan daitekela eta, Ebanjelioa gauzatu eta bizitzeko era jakin honetatik, Jaungoikoaren Erreinuaren barri ona gizon-emakume guztiei eskeini deikiegula uste dogu.

Bilbao, 1999ko ekaina